

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Beste bi odol talderen erantzuleak diren proteinak identifikatu dituzte



JENDE GEHIENARI galdetuko bagenio zenbat odol talde dauden, A, B, O eta AB (positibo eta negatibo) erantzuna jasoko genuke. Hori esanda, harritu egingo ginateke “jada identifikaturik dauden 30 odol taldeez gain beste bi antzeman dira berriki: Langereis eta Junior” inon irakurriko bagenu.

Nature Genetics aldizkarian irakurri berri dugu Vermont-eko Unibertsitateko (AEB) ikerlariek argitara eman duten artikulua. Lana AEBetan, Japonian eta Frantzia garatu da, eta horren emaitza ABCB6 eta ABCG2 proteinak, edo Langereis eta Junior, hurrenez hurren, topatzea izan da. Adibide gisa: Japonian 50.000 pertsonak Junior negatibodun odola daukate. Horren eraginez, amaren eta umearen arteko bateraezintasun arrisku handia dago.

Euskal Herrian ia ahaztuta baldin badago ere, joan den mendean oso normala izaten zen odola Rh negatiboa zuen amari ume bat edo gehiago hiltzea. Milaka urtetan arazoa izan den hori, orain txerto sinple batekin konpontzen da normalean, eta horixe espero dute, hain zuzen ere, aipatutako Japoniako populazioarekin gertatzea laster.



Ezkondur gabeko bikoteak, zoriontsuagoak ezkonduak baino

AEBetako bi soziologok hainbat bikote aztertu dituzte eta, batzuen eta besteen artean oso diferentzia nabarmenak ez badaude ere, ebatzi dute ezkonduak baino zoriontsuagoak direla ezkondu gabe elkarrekin bizi direnak.

<http://ttiki.com/35526> (Gaztelaniaz)

Landareek sortutako glaziazioa

Orain dela 444 milioi urte amaitu zen Ordoviziar Aroan eguraldia pixkanaka hoztu egin zen, eta ezohiko glaziazio batzuk izan ziren. Hoztearen arrazoiak atmosferako CO₂ kopuruaren jaitsiera handia izan zen, lehenbiziko aldiz landareak lehorrean hazteak eraginda.

<http://ttiki.com/35527> (Gaztelaniaz)

Fukushima urtebete ondoren

2011KO MARTXOAREN 11N hasi zen Fukushimako leherketa-katea. Orduz geroztik asko idatzi da, baina gero eta gutxiago. Pertsona asko ebakuatu zituzten eta ebakuatuta segitzen dute. Zentrala, ofizialki bederen, kontrolpean dago, eta hamarkadak behar izango dira guztia desmuntatzeko.

Oraindik datu banaka batzuk azaltzen dira, hala nola, erreaktore batean tenperatura izugarri igo zela bat-batean, baina antza denez termometroa izorratu zelako izan zen; Tokioko hainbat leku eta unetan egindako erradioaktibitate-neurketek erradioaktibitate arriskua adierazten dutela noizean behin; Fukushima inguruko probintzietako barazkiek behar baino erradioaktibitate handiagoa izaten dute...

Badirudi gauzak *stand by* egoeran daudela, baina hori itxura besterik dela uste dut, bizia eta lurra inoiz ez baitira *stand by* egoeran egon...



Oxigenoa aurkitu dute Saturnoko ilargi batean

Cassini zundak 2010ean Saturnoko ilargien inguruetan hartutako datuak aztertu ondoren, zientzialariek ebatzi dute oxigeno-geruza txiki bat dagoela ilargietako batean. Ez omen da nahikoa bertan bizitzeko, ez behintzat guk bizitza ulertzen dugun eran, baina beste planeta batzuetan izan daitekeenaz itxaropen bideak zabaltzen ditu.

<http://ttiki.com/35528> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16